

AMERIKARRAK DIRA UKRAINAKO GERRAN GARAILE BAKARRAK, BESTE DENAK GALTZAILEAK: UKRAINA, ERRUSIA ETA EUROPA

Itxaropen gutxi, euskalduna oporretatik etxeratzerako Ukrainako gerra baretua izateko. Vladimir Putinek Donbass mendean hartu orduko egingo omen du su-etena negoziatzeko eskaintza berria, abuztuan agian. NATOko agintariek –nabarmenki AEB eta Britainia Handikoek– eta Volodimir Zelenskik iradoki dutenez, mendebaldeak ez du entzun ere egin nahi ez erdibideko konponketarik eta ez negoziaketarik. Gerra, beraz. Baina noren mesedetan?

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Pascal Boniface (Paris, 1956) geopolitikan aditu ezaguna da: IRIS Nazioarteko eta Estrategiazko Harremanen Institutuaren sortzailea, geopolitikari lotutako 70 libururen egilea eta 203.000 abonatu dauzkan kanalaren jabea Youtuben. Luzaz Frantziako Alderdi Sozialistari lotua, PSko hainbat ministroen aholkulari ari-tua da, *ordenako gizona* beraz. Aldi be-rean, Europak NATOtik aldenduta bere autonomia geostrategikoa edukitzea-ren alde azaldu da bere analisisetan, De Gaullerekin hasita Mitterrandenganaino Frantzia indartsua izan den korronte ez-atlantistaren barnean.

Ukraina inbaditu zutenetik Errusia eta Vladimir Putin garbiki izendatu ditu erasotzaile eta gerrako krimenen egiletzat, salatuz gerra honen jatorrian erantzukizun asko Mendebaldeak ere

badaukela eta 2022ko dramara ekarri gaituen bidea abiatu zela 1990eko ha-markadan Sobiet Batasuna hondoratu ostean NATOk egindako okerreko urratsetatik. Azkenik dio Putinekin negoziatu beste biderik ez dagoela, ez baldin badugu nahi hondamendi izugarri-raino joan: “Etsaiarekin ez bada, norekin negoziatu behar duzu? Lagunarekin nego-ziazio beharrik ez daukazu!”.

Ukrainako azken gerraz Bonifacek bere kanalean material asko eskaintzen du, editorial gisako analisiak bezala beste aditu ezagunei egindako elkarrizketa mamitsuak. ARGIAko irakurlearentzako pasarte batzuk hautatu ditugu maiatzaren 28an Saint-Emilio-neko Filosofia Festibalean Bonifacek emandako *Conséquences géopolitiques de la guerre en Ukraine* (“Ukrainako gerraren ondorio geopolitikoak”) hitzal-

ditik, Ukrainako gerraren irabazle eta galtzaileei buruzkoak:

2022ko Europako gerraren lehen bik-tima Ukraina da, prefosta. Milaka hilda-ko eta zauritu, azpiegitura askoren sun-tsitzea... Herrialde martiria da Ukraina. Bere lehendakaria, Volodimir Zelenski, aktore komiko bat zen askoren ezustean agintaritzara iritsi arte. Inbasioaren lehen orduetan, errusiarrek harrapatu eta boteretik kendu nahi izan zuten, bai-na lortu ez eta Chaplin zena Churchill bi-lakatu zen, inbasoreari aurre egiten dion erresistentea. Amerikarrek Ukrainatik ateratzea proposatu ziotenean erantzun zien: “Ez dut taxi bat behar, laguntza mi-litarra behar dut”. Ikono bilakatu da, ez mundiala baina bai Mendebaldekoa.

Zelenski kritikatzek, Mendebaldean, bihurtzen zaitu Putinen konplize, halako boterea dauka. Laguntza eske zabiltza-

AEB-K BIDLITAKO ARMAK

Ukrainako armadako komandante bat uztailaren 1ean erakusten AEBk bidalitako HIMARS misil jaurtitzaile berria. Gidatzeko sistema sofistikatuak dituen misil honekin Errusiako gune minberak prezisio handiz kolpatzea lortu dutela diote ukrainarrek.



CNN

nean, ez zara aurrekoari kritikak egiten hasten; Zelenski bai, berdin Alemaniari, Macroni edo edozeini. Bere martiri estatusagatik uste du Mendebaldeari edozer eskatu diezaiokeela, baina eskatzen dituenak ondo aztertzeak dira. Ukrainaren arazo guztien iturria ez baita Putin.

Gaur Ukrainaren Barne Produktu Gordina 1991koa baino txikiagoa baldin bada ez da Putinen errua; batik bat beren agintarien biktima izan dira, ustelkerian oinarritutako egiturena: Europan ez da Ukraina baino herrialde ustelduagorik. Gaurkora etorrita, Europatik bidaltzen zaizkien laguntza zibil eta militar guztiak bertan geratzen diren ere ezin da segurtatu. Gerrak egin behar gaitu Ukrainako populazioarekiko solidario, ez bere agintariekiko.

Uneotan, Ukraina Europar Batasunean sartzea litzateke Polonia baino herrialde amerikarzialeago eta Bulgaria

**“Defenditu dezagun
Ukraina bera denagatik,
gure baldintzak jarrita.
Bestela, Ukraina izan
daiteke AEBek sartuko
diguten Troiako behorra”**

baino ustelduago bat sartzea, 40 milioi biztanlekoa; Europaren proiektua oztopatuko lukeena urte luzez.

Zelenskik ez du Europaren agendan agindu behar, Europagandik egiturazko funtsen diruak interesatzen zaizkio, ez

proiektu politiko europarra. Europarrok ez dugu lotsarik izan behar esateko interesak dauzkagula. Azken finean... zergatik kezkatzen gara Ukrainagatik ez bada interesagatik? Ez gara hainbeste kezkatzen Yemen, Siria edo Hego Sudaneko jendeez, ez dauzkagulako gure mugetan. Balioak aipatzen dira jendeak nahasteko, guk Ukrainan dauzkagunak dira segurtasun interesak. Defenditu dezagun Ukraina bera denagatik eta gure baldintzak jarrita. Bestela, Ukraina izan daiteke AEBek sartuko digun Troiako behorra, azkenik gabeko dirugalera eta ustelkeria eta mafia Europan sartzeko atea.

Errusia da gerraren beste galtzaile handia, Putinek pikutara bidali duelaiko metatua zuen herentzia politikoa. 1990eko hamarkadan Boris Yeltsinekin herrialdea hondoratu ostean, Putinek berriro eraikia zuen Errusiaren prestigioa. Mendebaldarrok gorrotatzen dugu

aurre egin digulako, baina gainerako munduan irudi oso ona zeukan. Ekialde Hurbilean, adibidez, Siriari eustez gain harremanak zeuzkan Hamasekin, Israelekin, Saudi Arabiarekin, Arabiar Emirerri Batuekin, Iranekin... Eta orain?

Ez berehala, baina bost urteren buruan Europa moldatuko da Errusiaren gasik gabe. Nork erosiko dizkio milaka milioi metro kubiko horiek? Txinak askoz gas gutxiago erosten dio, ezingo du ordezkatu europarren erosketa. Errusiak ezingo du Mendebaldeko produkturik erosi, errusiarrek sufrituko dute, estutu beharko dute gerrikoa. Gerra hasi zenetik 200.000 baino gehiagok alde egin dute Errusiatik eta ez dira Siberiako baserritarrak, dira informatikan edo komunikazio teknologia berrietan ari direnak, hots, Errusiaren etorkizuna. Putinek ezarri du estalinismoarekin alderatzeko moduko errepresioa eta kanpoan harremanak edo aukerak dauzkatenak badoaz atzerrira. Putinek esan zuen

“Ukrainako gerrarekin AEB eta NATO dira benetako garaileak, ez Mendebalde osoa, beste galtzailea Europa baita”

Errusia izango zela potentzia teknologia berrietan, baina bere ekonomiak segitzen du gasa, petrolioa eta beste lehen-gaien esportazioan berezituia. Baldintza horietan nork inbertitu lezake teknologia berrietan?

Beraz, Errusia da gerra honetako galtzaile handia Ukrainarekin batera.

Irabazlea? Dударik gabe Amerikako Estatu Batuak eta NATO. Horiek dira benetako garaileak, ez Mendebalde osoa, beste galtzailea Europa baita, Frantzia barne. Europak bere autonomia estrategikoa edukitzeko proiektua hilda dago, ez betirako baina bai urte batzuetarako. Orain “Europaren autonomia” aipatze hutsarekin AEBen kontraktatzat hartzen zaituzte. NATO, beste jokalaririk ez dago salan.

Gaur nor gogoratzen da AEBek Kambulen izandako debakleaz? 2021eko abuztuan amerikarrek Afganistandik ihes egin zutenean, denek, baita haien aldekoenak diren poloniarrek ere, esan zuten “Aizu, ‘B plan’ bat edukitzea ez litzateke txarra, amerikarrak kapaz dirrelako zu bazterrean lagatzeko, beren ihesean salduta utziz baita militarki haiekin konprometitu dauden aliatuak ere”. 2001etik amerikarrek xahutu dute Afganistanen 100 urteko Barne Produktu Gordina adina, zertarako eta



PUTINEK GALDU DU

Vladimir Putin Valery Gerasimov jeneralaren -ezkerrean- eta Errusiako Defentsa ministro Sergei Shoigu jeneralaren artean. “Errusia da gerraren beste galtzaile handia”, Pascal Bonifaceren arabera.



EUROPA ERE GALTZAILE

Volodimir Zelenski -erdian- Ursula von der Leyen eta Josep Borrellekin. Pascal Boniface: "Orain 'Europaren autonomia' aipatze hutsarekin, NATOren kontraktatzat hartzen zaituzte".

hogei urteren buruan korrika alde egiteko berriro agintean talibanak utzita.

Alabaina, hori horrela ikusten bazen 2021eko abuztuaren 15ean, gaur Ukrainiakoarekin denek diote hemen "Eskerrak amerikarrak hor daudela Errusiari aurre egiteko". Baina zer da argelkeria hori? Errusiaren urteko gastu militarra 60.000 milioi dolarrekoa da. NATOk herrialde europarren urteko gastu militarra da 250.000 milioi dolarrekoa. Errusiako armada ez bada izan gai Ukraina osoa hartzeko, nork pentsa lezake Alemaniari eraso diezaiokeenik? Hala eta guzti ere, europarrok gure gas-

**"Errusia da gerraren
beste galtzaile handia,
Vladimir Putinek
pikutara bidali
duelako metatua zuen
herentzia politikoa"**

tu militarra handituko dugu AEBei arma gehiago erosteko, edozein material militar erosiko diegu gerra berrietan baliagarriena zer den edo ez den aztertu barik. Eta Errusiakoa ahaztuta AEBeko gasa erosiko dugu, askoz garestiagoa eta askoz kutsagarriagoa.

Honaino, Pascal Bonifaceren kalkuluak. Eta honaino iritsi bazara, ARGIA-ko irakurle, jakin ezazu udako oporren aurreko azken Net Hurbil hau dela Pello Zubiria Kaminoren azkena. Lankide gazteago eta indartsuagoei heldu zaie txanda. Mila esker bihotzez eta... pasa uda ona, irakurle. ●



Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
www.zinkunegioptika.com

